


Agenda Euskadi Basque Country

2030



Euskal Ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari





ORRIALDEA

4	Aurkezpena
6	1. Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda
10	2. Euskadi Basque Country 2030 Agenda
12	2.1. Gobernu Programarekin bat etortzea
16	2.2. I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda
56	3. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Gobernantza eta Koordinazioa
58	4. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren baliabideak
59	5. Eranskina: Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Adierazleen Aginte-koadroa

2030 AGENDA: AUKERA BAT EUSKADIRENTZAT

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, helburutzat duena giza garapena bultzatzea gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan.

2030 Agenda honen bereizgarrietako bat da lurralde-dimentsioarekin konprometituta dagoela eta tokiko eskalara egokitu behar dela. Beraren definizioaren hasierako fasetik, bai Nazio Batuen Erakundeak eta bai Europako Batzordeak oso garrantzi handia eman diete herritarrengandik gertuen dauden lurralde-eremuei. Gure helburua da Eskualdeen, Gobernu azpiestatalen edo Estaturik gabeko Nazioen parte-hartzea sustatzen jarraitzea, eta Euskadi horien artean dago. Hurbiltasuna eta gizarte-eskarien ezagutza espezifikoak dugu gure alde, eta baditugu, halaber, haien beharrei ondo erantzutea bermatzen duten baliabideak.

2030 Agenda jokaleku global batean planteatzen da, eta, horri lotuta, Nazio Batuen Erakundeak erabaki du lurralde bakoitzak bere zirkunstantziak hartu behar dituela kontuan ibilbide hori egiterakoan. Garapen Jasangarriaren Helburuek ez digute esaten zer egin behar dugun, baizik eta testuinguru bat definitu gure politika publikoak hobetzen eta lehentasunak ezartzen laguntzeko, norberaren lurralde-errealitatea kontuan hartuta. Euskadik bere egiten du erronka hori, alegia, norabide horretan egiten ditugun ahaleginak Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJH) uztartzea. Hori da, hain zuzen ere, herrialde konprometitu baten konpromisoa.

Gure iritziz, 2030 Agenda aukera bat da Euskadirentzat, zeren guztiz bat baitator gure lehentasunekin: pertsona guztiei funtsezko zerbitzuak bermatzen dizkien giza garapena, eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortzen dituen hazkunde jasangarria. Horixe da hazkunde eta gizarte-ongizatearen euskal eredua, eta orain indartu egiten da Euskadi Basque Country 2030 Agenda honen aurkezpenarekin.

Gure helburua da indarrak batzea eta giza garapen jasangarriaren erronka globalei geure ekarpenak egitea. Nazio Batuen Erakundeak munduaz duen ikuspegia konpartitzen dugu: pertsonengan zentratutako mundu bat, planetaren babesarekin eta bizikidetzak baketsuarekin konprometitua, aliantza- edo itun-eredu baten bitartez oparotasuna lortzeko gaitasuna duena. Agenda honek Euskadiren etorkizuneko ikuspegia definitzen du, bai tokiko jokalekuan eta bai jokaleku globalean. Erronka bat da, beraz, eta geuk "auzolan" espirituarekin erantzun behar diogu, hau da, guztion ongia lortzera zuzendutako elkarlanarekin.

1. Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak berriro heltzen die 2000-2015 garairako ezarritako Milurtekoko Garapen Helburuei, eta bultzada berri bat ematen dio Garapen Jasangarriaren 17 Helburuak lortzeko ekimenari. Helburu horiek gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoa duten bost esferatan biltzen dira, misio argi bat bete behar dute, eta “inor atzean geratzen ez dela” bermatu behar dute.



Pertsonak

Pobrezia eta gosea desagerrarazi nahi ditugu, haien forma eta dimentsio guztietan, eta bermatu nahi dugu gizaki guztiek euren potentziala garatu dezaketela, duintasunez eta berdintasunez, ingurumen osasungarrian.



Planeta

Planeta narriaduraren kontra babestu nahi dugu, eta horretarako beharrezkoak dira kontsumo eta ekoizpen jasangarriak, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta klima-aldaketari aurre egiteko premiazko neurriak, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien beharrak ase ahal izateko.



Oparotasuna

Gizaki guztiek bizitza oparo eta osoaz gozatzeko bidea izan behar dute; hori bermatuta izateaz gain, aukera izan behar dute euren aurrerabide ekonomiko, sozial eta teknologikoa naturarekin uztartzeko, modu harmoniatsuan.



Bakea

Beldur eta indarkeriarik gabe bizi daitezkeen gizarte baketsu, bidezko eta inklusiboen alde egin behar dugu.



Lankidetzaz

Agenda inplementatzeko, beharrezkoak diren baliabideak mobilizatu behar dira, Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza bizkortu baten bitartez, herrialde, alderdi interesatu eta pertsona guztien lankidetzarekin; horren oinarrian, elkartasun-espíritu handiagoa egon behar da, mundu osoan, eta garrantzi berezia eman behar zaie pobrezia eta kalteberatasuna gehien pairatzen dituztenen beharrei.

Beste alde batetik, Garapen Jasangarriaren 17 helburuek eta horiek garatzen dituzten 169 helmugek izaera integratua eta zatiezina dute, eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak hartzen dituzte barne (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).



Euskadi Basque Country 2030 Agendaren ikusmoldeak ezaugarri hauek ditu:

Integratzailea

Izaera integratzaile eta zatiezina. Garapen Jasangarriaren hiru dimentsioak hartzen dituela barne (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).

Zeharkako izaera

Politika publikoen alor guztietara iristen da eta horietan guztietan eragina da; beraz, lidergoa ezin zaio egotzi izaera sektorialeko politika publiko jakin bati.

Aldi baterakoa

Denbora muga 2030 urtea da. Hala eta guztiz ere, garatu beharreko jarduerak, lau urteko iraupenetan gauzatzen dira, Eusko Jaurlaritzaren legegintzaldiarekin bat eginez.

Horren ondorioz, orain aurkezten dugun Agendan dauden jarduerak XI. Legealdiak (2017-2020) osatzen dute, eta berriztatu eta eguneratu beharko dira 2020tik aurrera XII legegintzan aprobaturiko den Gobernu Programaren arabera.

Zehatza

Bere jarduera-ahalmenaren eremuan sartzen diren gai eta konpromisoetan zentratzen da bereziki. Horregatik zehazten ditu bere gain hartzen dituen konpromisoak, eraginkortasun handiagoz jarduteari begira.

Argia

Tresna erraz, argi eta erabilgarri bat da, eta helmuga, plangintza-tresna, ekimen legegile eta adierazleen enuntziatuak soilik jasotzen ditu, zeren horiek Gobernu Programaren baitan garatzen baitira gero zehaztasunez.

Parte-hartzailea

Beti irekita maila eta eragile anitzeko parte-hartzeari.

Egokigarria

Jarraipen, ebaluazio eta parte-hartzearen ondorioz, Agenda "biziduna" eta egokigarria izango da, eta, hortaz, egoki eta komenigarritzat jotzen diren aldaketa guztiak txertatuko ditu, etengabeko hobekuntza-prozesu batean.

Nazioartekoa

Unibertsala, globala eta nazioartekoa; Eusko Jaurlaritzaren ekintzekin konprometituta, Euskadi Basque Country 2020 Estrategian integratutako Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeari begira.

2.1. Gobernu Programarekin bat etortzea



Euskadi Basque Country 2030 Agendak islatzen du zer neurritan uztartzen diren Gobernu Programa eta beraren politika sektorialak 17 GJHeKin lotutako helburu eta helmugekin; eta islatzen du, halaber, zer ekarpen egiten zaion zeregin horri.

Era horretan, Gobernu Programa bat dator Nazio Batuen Erakundearen Agendarekin, horren espiritua bere egiten duelako, kontuan hartuta Garapen Jasangarriaren Helburuak ez direla planteatu zer egin behar dugun ezartzeko, baizik eta testuinguru unibertsal komun bat definitzeko eta, horri esker, lehentasunak ezartzeko gure lurralde-errealitatea kontuan hartuta.

2016-2020ko XI. Legegintzaldiaren Gobernu Programa bat dator Giza Garapen Jasangarriko Estrategiarekin, elementu hauen bitartez:

15 Herrialde-helburu

15 Plan Estrategiko

54 Plan Sektorial

28 Ekimen Legegile

175 Konpromiso

650 Ekimen

100 Adierazle

Gobernu Programa Nazio Batuetako 2030 Agendarekin bat datorrenaren adierazpena ondorengo eskeman islatzen da:

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN 2030 AGENDA		EUSKO JAURLARITZAREN 2017-2020 PROGRAMA		EUSKO JAURLARITZA		GOBIERNO VASCO		
GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK (GJH)	ESFERA GARRANTZITSUAK	HERRIALDE HELBURUAK	KONPROMISOAK	EKIMENAK	ADIERAZLEAK	PLAN ESTRATEGIKOAK	PLAN SEKTORIALAK	LEGEAK
17	5	15	175	650	100	15	54	28
1. Pobrezia desagerraraztea 2. Gosea desagerraraztea / elikadura 3. Bizimodu Osasuntsua 4. Hezkuntza inklusiboa 5. Genero-berdintasuna	 PERTSONAK	Pobreziaren tasa % 20 murriztea Bizi-itxaropena luzatzea Jaiotze-tasa igotzea Eskola uztearen tasa % 8tik beherakoa izatea 25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea Europako lehenengo 4 herrien artean egotea genero-berdintasunean	65	225	33	Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa Osasun Plana Lanbide Heziketako V. Plana IV. Unibertsitate Plana VII. Berdintasun Plana Euskararen Agenda Estrategikoa	18	10
6. Ura eta saneamendua 7. Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak 8. Klima-aldaketa 9. Itsas baliabideak 10. Ekosistemak	 PLANETA	CO2 emisioak % 20 murriztea	10	35	11	IV. Ingurumen EsparruPrograma	11	3
11. Hazkunde ekonomikoa eta enplegua 12. Azpiegiturak eta berrikuntza 13. Energia 14. Desberdintasunak murriztea 15. Hiriak eta hiri-kokaguneak	 OPAROTASUNA	Langabezia-tasa % 10etik beherakoa izatea 20.000 gaztek lan-esperientzia izatea EBko BPGaren % 125era iristea BGParen % 25 industrialia izatea 100 berrikuntza-proiektu estrategiko Liderra izatea gardentasunaren indizeetan	64	278	51	Enpleguaren Plan Estrategikoa Basque Industry 4.0. Industrializazio Plana Zientzia eta Teknologiaren Euskal Plana Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020 Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plana	16	13
16. Bakea eta Justizia	 BAKEA	ETA armagabetzea eta desegitea	24	80	3	Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana Segurtasun Publikoaren Plana	6	2
17. Aliantzak / Garapenerako lankidetzeta	 LANKIDETZA	Estatus politiko berria	12	32	2	"Euskadi Basque Country" Nazioartekotze Estrategia	3	

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda 2017-2020 garaiari dagokio, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko XI. Legegintzaldiaren Gobernu Programaren indarraldi berbera du.

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda hau bereziki zuzentzen da Garapen Jasangarriaren Helburuekin lotura handiena duten Gobernu Programaren helburu eta konpromisoetara; ildo horretatik, helburu eta konpromiso horien jarraipen espezifikoa egingo da, Agendak berak gobernantzarako ezartzen dituen tresna eta bideen bitartez.

Horrenbestez, I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda egituratzen da 2030rako Agendak **Garapen Jasangarrirako** ezarrita dituen **17 Helburuen inguruan**. Helburu horiek Gobernu Programaren **15 Herrialde-Helburuekin** lotzen dira, eta **100 Helmuġatan** garatzen dira; Euskadiko 2020rako Gobernu Programako konpromisoen artetik 17 GJHein lotura handiena dutenak identifikatzen ditu; eta interes komuneko gaietan zentratzen da, oso lokalak izateagatik interes globalik ez duten gaiak alde batera utzita.

Euskadi Basque Country 2030 Agendaren 17 Helburuak 100 Helmuġaren bitartez bideratzen dira. Helmuġa horiek lotuta daude Euskadiko 2020 Gobernu Programaren konpromisoen artetik garapen jasangarrirako 2030 Agendarekin zerikusia duten konpromisoekin.

Helburu bakoitzaren Helmuġa kopurua 3 eta 10 bitartekoa da, Eusko Jaurlaritzak dituen eskumenen arabera, eta, hortaz, ez dute dimentsio berdina Helburu guztietan.

Helmuġa horiek plangintza espezifikoekin edo ekimen legegileen onarpenarekin lotuta daudenean, Agendak identifikatzen du zein diren helmuġa bakoitzarekin zerikusia duten **Planak eta Ekimen Legegileak**.


Bukatzeko, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak aurreikusten du herrialde bakoitzak bere adierazle globalak egokitu behar dituela bere errealitatera, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorreko arazo nagusiak jorratuz eta 2020, 2025 eta 2030 urteetan lortu beharreko helmuġa konkretuei lotuz baita.

Horren arabera, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren 17 Helburuak emaitzen adierazleekin lotzen dira, banan-banan, aginte-koadro bat osatu arte. Koadro horrek **50 Adierazle** biltzen ditu, eta horien artean sartuta dago Giza Garapenaren Indizea, nazioartean erreferentziatzen hartzen den adierazle sintetiko bezala.


Adierazleen definizio hori irekia da; era horretan, Nazio Batuen Erakundearen eta Europar Batasunaren adierazleen koadroak eboluzionatzen duenean, Euskadi Basque Country Agendaren adierazleen aginte-koadroa ere aldaketa horietara egokitu daiteke.

15 HERRIALDE-HELBURU

17 GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURU



80 PLANGINTZA-TRESNA



19 EKIMEN LEGEGILE

93 KONPROMISO

50 ADIERAZLE



1. HELBURUA

Pobrezia
mota guztiak
desagertzea
mundu osoan



6 HELMUGA

3 PLANGINTZA-
TRESNA

1 EKIMEN
LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Pobrezia ekonomikoren indizea (Arope)
- Pobrezia materialaren indizea (Arope)
- Lan-intentsitate txikiko familia-unitateak (Arope)

Helmugak:

1. Pobrezia-egoerei erantzutea eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzearen alde eginez eta gizarte-bazterketako egoeren kronifikazioa eragotziz

2. Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatzea, gehien behar dituzten pertsonen eskura iritsi daitezzen, instituzioen arteko lankidetzeta eta datuen interkonexioa bultzatuz

3. Gizarte-larrialdietarako Laguntzak bermatzea, pobrezia energetikoa barne sartuta

4. txerik gabeko pertsoneri arreta eskaintzea

5. Adostasun zabaleko gizarte-itun bat sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantziazioa sendotzeko eta haren iraupena bermatzeko

6. Enplegarritasun zaileko pertsoneri zuzendutako arreta optimizatzea, gizarte-zerbitzuen eta euskal enplegu-zerbitzuaren arteko koordinazio eta lankidetzaren bitartez

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

126

126

130 eta 131

132

129

133

Plangintza-Tresnak:

1. Inklusio Plana 2017/2021

2. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019

3. Etxerik gabeko Pertsonen Euskal Estrategia 2017-2020

Ekimen legegilea:

1. Diru-sarrerak bermatzeko Legea aldatzeko Lege Proiektua

2. HELBURUA



Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobe lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

5 HELMUGA

6 PLANGINTZA-TRESNA

1 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Bizitza osasungarriko urteak jaiotze-unean
- Obesitate-tasa
- Nekazaritza ekologikoko eremuak

Helmugak:

7. Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

26

8. Azpiegitura eta zerbitzu egokiak ematea landa-eremuei eta kostaldeari, haien bizi-baldintzak hiri-eremuetako baldintzekin parekatzeko eta horko biztanleria mantendu ahal izateko

26

9. Lehen sektorea gazteagotzea, etorkizuneko berme gisa

26

10. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea, nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko

26

11. Nekazaritza ekologikoa eta haren transformazio-industria sustatzea

26 eta 27

Plangintza-Tresnak:

4. Landa Garapen Programa –OSOA- 2015-2020

5. Gaztenek 2020 Plana Nekazari Gazteentzat

6. Elikagaien Segurtasunaren Ikerketa Koordinatzeko Plana

7. Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala

8. Nekazaritza Ekologikoaren Plana

9. Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020

Ekimen legegilea:

2. Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legea aldatzeko Lege Proiektua

3. HELBURUA



Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

10 HELMUGA

11 PLANGINTZA-TRESNA

1 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Bizi-itxaropena jaiotze-unean
- Gastu publiko sanitarioa biztanle bakoitzeko
- Minbiziaren baheketa-programak barne hartzen duen biztanleriaren % (bularreko, koloneko eta umetoki-lepoko minbizia)

	Gobernu Programaren Konpromisoa
Helmugak:	
12. Osasun sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatzea	64
13. Pertsonen erantzunkidetasuna osasunaren zaintzan sustatzea	66
14. Ekitatea osasun-arretan bermatzea, garrantzi berezia emanaz genero-ikuspegiari, kolektibo kalteberenei eta arretaren kalitateari	67
15. Osasuna ingurune komunitarioan bultzatzea, jarduera fiskoa eta elikadura osasungarria sustatuz	69
16. Osasun Publikoa bultzatzea, instituzioen arteko koordinazio eta lankidetzarako formulak ezarriz, eta koordinazio soziosanitarioa sustatzea	70 eta 76
17. Zainketa aringarrien arreta bultzatzea, eta baita gaixotasun kroniko, buru-gaixotasun eta gaixotasun arraroei zuzendutako arreta espezifikoa ere	80 eta 81
18. HIESa eta bestelako gaixotasun infekziosoak prebenitzea	73
19. Adikzioak prebenitzea eta tratatzea, gazteei zuzendutako ekimenak indartuz	72
20. Osasun- eta kirurgia-arreta eskaintza herrialde pobreetatik edo gerran dauden herrialdeetatik datozen adingabeei, baita aldi baterako harrera-egoeran dauden adingabeei ere	64
21. Osasunaren alorreko ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea	89
Plangintza-Tresnak:	
10. Osasun Plana 2020	
11. Elikadura Osasungarrirako Estrategia	
12. Haurren Obesitatea Prebenitzeko Plana	
13. Adingabeak eta Alkohola Programa	
14. Haurren Hortzak Zaintzeko Programa	
15. Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak 2017-2020	
16. Adikzioei buruzko EAEko Plana	
17. Plan Onkologiko Integrala	
18. Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana 2020	
19. Osasun arloko ikerketa eta berrikuntzarako estrategia 2020	
20. Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun seguru eta jasangarrirako Plana 2015-2020	
Ekimen legegilea:	
3. Kirolaren Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko proiektua	

4. HELBURUA



Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

7 HELMUGA

8 PLANGINTZA-TRESNA

2 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Eskola uztearen tasa % 8tik behera
- Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen %
- Bizitzan zehar ikaskuntzan parte hartu duten helduen %



4

Helmugak:

22. Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko eskola inklusibo, bidezko eta berritzailea sustatzea
23. Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan
24. Eleaniztasuna eskolan bultzatzea
25. Hezkuntza-azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea
26. Modernizazio teknologikoa irakaskuntzan bultzatzea
27. Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartasuna)
28. Enpresen beharrei eta pertsonen enplegarritasunei erantzuten dien bikaintasunezko lanbide-heziketa finkatzea, laugarren iraultza industrialaren erronkak bereziki kontuan hartuta

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

91

92

93

96

97

166

100 eta 102

Plangintza-Tresnak:

21. Hezkuntza Sistemaren Hezkidetzaren eta Genero-indarkeriaren Prebentzioa lantzeko Gida Plana 2017-2020
22. Ikasle etorkinen arretarako plana, eskola inklusibo eta kulturartekoaren barruan
23. Hezkuntza-azpiegiturak hobetzeko plana
24. Lanbide Heziketako Euskal Plana
25. Unibertsitate Plana
26. Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategia 2030
27. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategia (H) ABIAN 2030
28. Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020

Ekimen legegileak:

4. Euskal Hezkuntzaren Lege Proiektua
5. Euskal Lanbide Heziketaren Lege Proiektua

5. HELBURUA



Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

4 HELMUGA

3 PLANGINTZA-TRESNA

1 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Genero-berdintasunaren indizea
- Batez besteko soldata. (genero-desberdintasuna soldatagatik)
- Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko gizon eta emakumeen %. (genero-desberdintasuna prestakuntza mailan)



Helmugak:

29. Balioen aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

145

30. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lanaren eremuan bultzatzea, soldata-diskriminazioaren aurka borrokatuz eta bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa uztartzearen alde eginez

146

31. Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea

139

32. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea eta genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetzea. NBEren Populazioren Funtzari laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuen Programa Bateratuan parte hartzeko (UNFPA-NBE)

147 eta 157

Plangintza-Tresnak:

29. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana

30. Adingabekoen aurkako genero-indarkeria prebenitzeko, haren kontra babesteko eta genero-indarkeriaren biktimei adingabeko horiei eragindako kaltea konpontzeko plana

31. Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal ituna

Ekimen legegilea:

6. Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Lege Proiektua

6. HELBURUA



Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasagarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea

3 HELMUGA

2 PLANGINTZA-TRESNA

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Ibaietako uraren kalitatea
- Osoko ur-hornidura
- Uraren kostu unitarioa



Helmugak:

33. Urari buruzko politika egoki bat bultzatzea, haren kalitatea bermatzeko eta alferrikako galeraren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatzeko

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

46

34. Uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako azpiegitura hidraulikoak garatzea eta gauzatzea, indarrean dagoen plangintzaren arabera. Uraren kanonaren bidez biltzen den diruaren % 5 hornidura eta saneamendurako lankidetzaren proiektuetara zuzentzea, garapen bidean dauden herrialdeetan

46

35. 2015-2021 aldirako Plan Hidrologikoa berraztertzea

46

Plangintza-Tresnak:

32. Plan Hidrologikoa 2021

33. Uholde arriskua kudeatzeko plana 2021

7. HELBURUA



Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat

4 HELMUGA

1 PLANGINTZA-TRESNA

2 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumo gordinean
- Intentsitate energetikoa (barne hartzen du kontsumoaren intentsitatea /BPG – azken intentsitate energetikoa-)
- Faktura energetikoa: kontsumitutako energiaren urteko kostua

Helmugak:

36. Gasaren alde egitea, trantsizio-energia gisa, energia berriztagarriak neurri handiagoan inplementatzeko bidean; eta nazioarteko konexio energetikoa sostengatzea gas eta elektrizitatearen horniduran

37. Teknologiaren eta enpresen garapena sostengatzea energia-iturri berriztagarri eta jasangarrien erabilera sustatzeko

38. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko proiektuak bultzatzea

39. Gasolioa garraiotik gero eta neurri handiagoan ezabatzea, garraioaren gasifikazioa (lehorrekua eta itsasokoa) eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatuz

Plangintza-Tresnak:

34. Euskadiko Energia Estrategia 2030

Ekimen legegileak:

7. Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoari buruzko Lege Proiektua

8. Mugikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

19

19

19

19

8. HELBURUA



Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea

7 HELMUGA

4 PLANGINTZA-TRESNA

3 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Per capita BPG
- Langabezia-tasa
- Batez besteko soldata



8

Helmugak:

	Gobernu Programaren Konpromisoa
40. Kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzea	2
41. Lanerako kualifikazio eta birziklapena bultzatzea, enprekin, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetzan estuan arituz, prestakuntza duala eta enpresa eta erakundetako praktikak bultzatuz	4
42. Gazteen laneratzea bultzatzea eta ekintzailtzaren alde egitea	5 eta 15
43. Gizarte-elkarrizketa eta langileen parte-hartzea euren enpreetan sustatzea, eta langile autonomoen arteko elkarlana ere bai	6
44. Enpresen Gizarte-erantzukizuna sustatzea	7
45. Gizarte-ekonomiako enpresak bultzatzea	8
46. Laneko osasuna, segurtasuna eta berdintasuna bultzatzea	10

Plangintza-Tresnak:

- 35. Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa
- 36. Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020
- 37. Laneko Osasun eta Segurtasunerako Euskal Estrategia 2015-2020
- 38. Erakunde arteko ekintzailtza plana 2020

Ekimen legegileak:

- 9. Euskal Enplegu Sistemaren Lege Proiektua
- 10. Enplegu Publikoaren Lege Proiektua
- 11. Kooperatiben Lege Proiektua

9. HELBURUA



Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea

7 HELMUGA

4 PLANGINTZA-TRESNA

1 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- BPG industrialia
- I+Grako Gastua / BPG
- Pertsonen mugikortasuna lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetan



9

Helmugak:

- 47.** Garraio jasangarri multimodala sustatzea, arreta berezia zuzenduz trenbide-garraioari (abiadura handikoa, aldirikoa eta tranbia) eta plataforma logistikoei
- 48.** Berrikuntzaren, fabrikazio adimenduna gidatzearen eta zerbitzu aurreratuak industrian txertatzearen alde egitea
- 49.** ETEak eta zailtasunak dituzten enpresen birmoldaketa sostengatzea
- 50.** Proiektu industrial estrategikoak sustatzea
- 51.** Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologiaren alde egitea, arreta berezia zuzenduz fabrikazio aurreratuari, energiari eta bio-zientzia-osasunari
- 52.** Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatzea
- 53.** Informazioaren eta ezağutzaren gizartea sustatzea, teknologien aukerak aprobetxatzeko lehiakortasuna -zibersegurtasuna barne sartuta-, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

37 eta 38

12

13

14

16

17

18

Plangintza-Tresnak:

- 39.** Industrializazio Plana 2017-2020. "Basque Industry 4.0"
- 40.** Espezializazio Adimendunerako Estrategia -"RIS 3 Euskadi"
- 41.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020
- 42.** Euskadiko Agenda Digitala 2020

Ekimen legegilea:

- 12.** Euskadiko Portuen Lege Proiektua

10. HELBURUA

Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea



7 HELMUGA

7 PLANGINTZA-TRESNA

1 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Desgaitasuna duten pertsonen enplegu-tasa
- Biztanleria immigrantearen enplegu-tasa
- Gini indizea



10

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

Helmugak:

54. Zahartze aktiboa eta belaunaldiarteko elkartasuna bultzatzea	135
55. Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz	134
56. Hirugarren Sektore Soziala sostengatzea	138
57. Boluntarioen lana bultzatzea	137
58. Immigrazioaren aldeko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako Gizarte Ituna bultzatzea	140
59. Dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboa, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erronka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...)	165
60. Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta	166

Plangintza-Tresnak:

- 43. Immigraziorako Euskal Estrategia
- 44. Boluntzaritzaren Euskal Estrategia 2017-2020
- 45. Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programa
- 46. Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategia 2017-2020
- 47. Zahartze aktiborako Euskal Estrategia 2015-2020
- 48. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana 2020
- 49. Esparru Dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakundeen artekoa eta sailen artekoa orientatzeko

Ekimen legegilea:

- 13. Kultuzko Zentroen Lege Proiektua

11. HELBURUA



Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

7 HELMUGA

8 PLANGINTZA-TRESNA

2 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Kriminalitate-tasa (lege-hauste penalak 1000 biztanleko)
- Hirietako PM 10 kontzentrazioa
- Hiri-hondakinen birziklapen-tasa

Helmugak:

61. Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea	47
62. PHiriko zaharberritze, biziberritze eta berriztapena sustatzea	48
63. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea	142
64. Garraio publiko jasangarri eta intermodala bultzatzea	33 eta 34
65. Kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea	108 eta 113
66. Euskararen erabilera sustatzea	116 eta 117
67. Larrialdien aurreko prebentzio- eta alerta-sistema indartzea, baita herritarren autobabesa ere	153

Plangintza-Tresnak:

- 50. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 2040
- 51. Euskadiko Hiri Agenda. Bultzatu 2050
- 52. Eraikin-parkean Epe Luzera Esku Hartzeko Estrategia
- 53. Etxebizitzaren Gida Plana 2018-2020
- 54. asangarritasunerako Udalerrien Sarearen 2020rako Plan Estrategikoa. Udalsarea 21
- 55. Garraio Jasangarriaren Gida Plana 2020
- 56. Kulturaren Euskal Plana "Euskal Kultura Auzolanean 2020"
- 57. Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020

Ekimen legegilea:

- 14. Muşikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua
- 15. Euskal Kultur Ondarearen Lege Proiektua

12. HELBURUA



Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

4 HELMUGA

4 PLANGINTZA-TRESNA

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Azken energia-kontsumoa
- Materialen etxeko kontsumoa
- Biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinen ratioa

Helmugak:

	Gobernu Programaren Konpromisoa
68. Ekonomia zirkularren alde egitea	42
69. Ingurumen aldetik eredugarria den administrazio publikoaren konfigurazioan aurrera egitea	45
70. Informazio azkar eta eraginkorra eskaintzea kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen	32
71. Turismo jasangarriaren bikaintasuna sustatzea	28

Plangintza-Tresnak:

- 58. Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020
- 59. Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030
- 60. Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2020
- 61. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020

13. HELBURUA



Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

5 HELMUGA

1 PLANGINTZA-TRESNA

1 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztea
- CO2 baliokidearen kontsumoa kw/ordu bakoitzeko
- Airearen kalitatearen indizea

Helmugak:

	Gobernu Programaren Konpromisoa
72. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea	41
73. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa sustatzea	41
74. Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea	41
75. Eraikuntza jasangarria, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatzea	41
76. Klima-aldaketari egokitzeko ikuspegia integratzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onesteko prozesuan eta lurralde- eta hiri-plangintzako tresnetan	41


Plangintza-Tresna:

62. Klima-aldaketaren aurkako Estrategia 2050-Klima 2050

Ekimen legegilea:

16. Ingurumenaren eta Klima Aldaketaren Lege Proiektua

14. HELBURUA



Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira

4 HELMUGA

2 PLANGINTZA-TRESNA

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Azaleko ur-masen kalitatea
- Bainu-eremuetako uraren kalitatea
- Ibaietako uraren kalitatea

Helmugak:

	Gobernu Programaren Konpromisoa
77. Arrantza jasangarri eta lehiakorra sustatzea	26
78. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean	26
79. Lehorretik itsasora doazen isurketen kudeaketa jasangarria	46
80. Kostaldea babestea lurzorua erabilerak arautzearen bidez	47

Plangintza-Tresnak:

- 63.** Euskadiko arrantza eta akuikultura plana 2020
- 64.** Itsasertza babesteko eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

15. HELBURUA



Lehorreko bizi babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzeta, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria

6 HELMUGA

4 PLANGINTZA-TRESNA

1 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

2 ADIERAZLE

- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera
- Zuhaitzez estalitako natura-guneen dentsitatea

Helmugak:

	Gobernu Programaren Konpromisoa
81. Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea lurzoruen erabilerak arautzearen bidez	47
82. Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumenaren babes eta kontserbazioan duten erantzunkidetasunean aurrera eginez	46
83. Biodibertsitatea babestea	46
84. Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu-planak garatzea	46
85. Nekazaritza ekologikoa sustatzea	26
86. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea nekazaritza azpisektorean	26

Plangintza-Tresnak:

- 65.** Ingurumen Esparru Programa 2020
- 66.** Biodibertsitate Estrategia 2030
- 67.** Lurzoru kutsatuak kudeatzeko eta lehengoratzeko plana
- 68.** Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala

Ekimen legegilea:

- 17.** Natura Ondarearen Kontserbazioaren Lege Proiektua

16. HELBURUA



Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

10 HELMUGA

8 PLANGINTZA-TRESNA

2 EKIMEN LEGEGILE

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Herrialdeko Gobernuarekiko konfiantza
- Nazioarteko gardentasun-indizea
- Herrialdeko demokraziaren funtzionamenduari buruzko iritzia

	16 Gobernu Programaren Konpromisoa
Helmugak:	
87. Bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta	166
88. Administrazio Publiko ireki, parte-hartzaile, garden eta eraginkorra bultzatzea	60
89. Kargu publikoen osotasuna segurtatzea	57
90. Dibertsitate kulturalak eta arrazakeria zein xenofobiaren prebentzioak dituzten balio positiboez sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea	140
91. Segurtasun- eta polizia-zerbitzu publiko eraginkor eta hurbila sustatzea	148
92. Sistema judizial moderno, azkar eta eraginkorraren alde egitea, eta adingabeentzako arreta judiziala garatzea	155 eta 158
93. Gatazkak konpontzeko sistema alternatiboak bultzatzea	159
94. Indarkeriaren amaiera ordenatua sustatzea, ETAren armagabetze eta desegitea barne sartuta	161
95. Biktima guztiei zuzendutako egia-, justizia-, erreparazio- eta elkartasun-politikak ezartzea	162
96. Laguntza ematea pertsona desagertuen ingurukoe	160
Plangintza-Tresnak:	
69. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana	
70. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020	
71. Segurtasun Publikoko Plan Orokorra 2020	
72. Justizia Administrazio Elektronikoa Bultzatzeko Plana	
73. Herritarren, kultura aniztasunaren eta immigrazioaren eremuko jarduketara plana	
74. Adingabekoen aurkako genero-indarkeria prebenitzeko, haren kontra babesteko eta genero-indarkeriaren biktima adingabeko horiei eragindako kaltea konpontzeko plan integrala	
75. Gazte Justiziaren Plana 2019-2020	
76. Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa	
Ekimen legegilea:	
18. Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Lege Proiektua	
19. Euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onari buruzko Lege Proiektua	

17. HELBURUA



Garapen
Jasangarrirako
Mundu Aliantza
inplementatzeko
eta biziberritzeko
tresnak sendotzea

4 HELMUGA

4 PLANGINTZA-
TRESNA

AGINTE-KOADROA

3 ADIERAZLE

- Giza Garapenaren indizea
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzen duten gazteak
- Garapenerako lankidetzarako laguntzaren % / BPG



Helmugak:

97. Basque Country nazioartekotze-estrategia globala garatzea, lankidetzarako publiko-pribatuaren bidez

21

98. Garapenerako lankidetzarako politika sendotzea eta lankidetzarako tresnak estrategia espezifikoaren bidez eguneratzea

168 eta 169

99. Garapenerako lankidetzarako politika publikoaren koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatzea

171

100. Lankidetzarako politika publikoari lotutako ekimen estrategikoak abiatzeko aliantzen garapena bultzatzea estatuan, Europan eta nazioartean

170

Plangintza-Tresnak:

77. Euskadi Basque Country 2020 Nazioartekotze Estrategia

78. Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana 2018-2021

79. Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua

80. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Ekintza Humanitarioko Estrategia 2018-2023

Gobernu
Programaren
Konpromisoa

3. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Gobernantza eta Koordinazioa

Euskadi Basque Country 2030 Agendaren zeharkakotasunagatik eta izaera integralagatik, I. Agenda hau Jaurlaritzaren ekintza osorako gidatzeko eta koordinatzeko ardura Lehendakariari dagokio, eta, zehazki, Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiari eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari.

Lehendakariaren Idazkaritza Nagusia, Jaurlaritzaren ekintzaren koordinazioaz arduratzeko eginkizuna betez; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Jaurlaritzaren kanpo-ekintzaren koordinazioa bultzatzeko eta sustatzeko zeregina betez, Euskadi Basque Country 2020 Nazioartekotze Esparru Estrategiaren baitan.

Urtero, I. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren jarraipen-txostena prestatuko da. Bertan jasoko da Agenda 2030aren lortzeari begira munduan egiten ari den ahalegin eta lanari Euskadik egiten dien ekarpena; gainera, txosten hau izango da NBEren Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko aurrerapenari buruzko urteko txostenari Euskadik egiten dion ekarpena.

Txosten hau Eusko Legebiltzarrerara eramango da.

Jaurlaritzako sailek 2030 Agendaren gobernantza-ereduan izan behar duten inplikazioa Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordetik bideratuko da.

Euskadi Basque Country 2030 Agendaren kudeaketan Euskal Erkidegoko gainontzeko Institutuzioen parte-hartzea Kanpo Harremanetarako erakundeen arteko Batzordearen baitan gauzatuko da. Batzorde horren partaideak dira Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, 3 Euskal Hiriburuak, Euskadiko Udalen Elkarte (Eudel) dira. Azkenez, Euskadiko Kanpo-Harremanetan proiektzioa duten gizarte-eragileak, Lehendakaria buru duen Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordearen bidez.

Eskema hau osatuko da Euskadi Basque Country 2030 Agendaren helburu eta helmugen ardura duten gobernu-arlo bakoitzeko eragile sozial, ekonomiko eta kulturalen parte-hartzearekin.

4. Agenda Euskadi Basque Country 2030 Agendaren baliabideak

Basque Country 2030 Agendaren baliabideak Euskadiko Aurrekontu Orokorretatik etorriko dira, hain zuzen ere Garapen Jasangarriaren Helburuekin zuzeneko lotura duten partidetatik.

Zehazki, gai hauetara zuzendutako partidak dira: bereziki kalteberak diren kolektiboen aukera-berdintasuna sustatzera zuzendutakoak (emakumeak, haurrak eta migratzaileak), desberdintasuna murriztera zuzendutakoak, eta ingurumenaren kudeaketa hobetzera eta ekosistemak kontserbatzera eta lehengoratzera zuzendutakoak; eta, gainera, gai hauetara zuzendutako inbertsioak: gizarte-babesa, osasuna, hezkuntza, naturaren kontserbazioa, klima-aldaketaren aurkako borroka eta garapenerako lankidetzari buruzko politika.

2018an, partida horien lehenengo identifikazioa egingo da, horien jarraipena egin ahal izateko 2019 eta 2020ko ekitaldietan.

ERANSKINA

EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDAREN ADIERAZLEEN AGINTE-KOADROA

1. Helburua		
Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan		
1.2.2. Pobrezia bizi diren gizon, emakume eta haurren proportzioa	1.11. Pobrezia edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak	Pobrezia ekonomikoren indizea (Arope)
1.2.1. Pobreziaren atalase nazionalaren azpitik bizi den biztanleriaren proportzioa	-	Pobrezia materialaren indizea (Arope)
10.1.1. Biztanleriaren % 40 pobreenaren eta biztanleria osoaren familien gastu edo sarreraren per capita hazkundetasak	1.14. Lan-intentsitate oso txikiko familietan bizi diren pertsonak	Lan-intentsitate txikiko familia-unitateak (Arope)

2. Helburua		
Gosea amaitzea, elikagai-seguritasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea		
2.1.1. Azpielikaduraren prebalentzia	-	Bizitza osasungarriko urteak jaiotze-unean
2.2.2. Malnutrizioaren prebalentzia 5 urtetik beherako haurren artean, motaren arabera banakatuta	2.11. Obesitate-indizea	Obesitate-tasa
2.5.1. Elikadura eta nekazaritzarako landare- eta animalia-baliabide genetikoaren kopurua	2.54. Nekazaritzako lurretako nutrienteen oreka gordina	Nekazaritza ekologikoko eremuak

3. Helburua		
Guztontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea		
3.4.1. Gaixotasun kardiobaskularrei, minbiziari, diabetesari edo arnas gaixotasun kronikoei egotzitako hilkortasun-tasa	03.25. Gaixotasun kronikoen eragindako hilkortasun-tasa	Bizi-itxaropena jaiotze-unean
3.8.1. Oinarrizko osasun-zerbitzuen estaldura	-	Gastu publiko sanitarioa biztanle bakoitzeko
-	-	Minbiziaren baheketa-programak barne hartzen duen biztanleriaren % (bularreko, koloneko eta umetoki-lepoko minbizia)

4. Helburua		
Guztontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea		
4.1.1. Irakurketa eta matematiketan gutxieneko kompetentzia maila lortu duten mutil, neska eta nerabeen proportzioa	4.20. Hezkuntza eta prestakuntza amaitu gabe uztea	Eskola uztearen tasa % 8tik behera
-	4.30. Goi mailako ikasketak bukatzea	Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen %
4.3.1. Gazte eta helduek prestakuntza akademikoaren eta ez-akademikoaren azken 12 hilabeteetan izandako parte-hartzearen tasa	.40. Helduek irakaskuntza akademikoan duten parte-hartzea	Bizitzan zehar ikaskuntzan parte hartu duten helduen %

5. Helburua		
Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahaldunduz		
5.c1. Genero-berdintasunaren eta emakumeen ahaldunduzaren jarraipena egiteko sistemak dituzten herrialdeen proportzioa	-	Genero-berdintasunaren indizea
8.5.1. Emakumezko eta gizonen arteko langileen batez besteko diru-sarrera	5.10. Gizonen eta emakumeen arteko soldata-desberdintasuna	Batez besteko soldata. (genero-desberdintasuna soldatagatik)
5.2.1. Euren oraingo edo lehengo bikotekidearen aldetik azken 12 hilabeteetan indarkeria pairatu duten emakumeak eta 15 urtetik gorako neskek	5.33. Indarkeria fisiko eta sexuala bikotekidearen aldetik edo bikotekidea ez den norbaiten aldetik	Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko gizon eta emakumeen %. (genero-desberdintasuna prestakuntza mailan)

6. Helburua		
Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea		
6.3.2. Kalitate oneko ur-masen proportzioa	6.21. Ibaietako oxigeno-eskari biokimikoa	Ibaietako uraren kalitatea
6.1.1. Edateko ur-hornidurako zerbitzuak erabiltzen dituen biztanleriaren proportzioa	6.13. Hirietako hondakin-uren bigarren mailako tratamendura -gutxienez- konektatutako biztanleria	Osoko ur-hornidura
-	-	Uraren kostu unitarioa

7. Helburua		
Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat		
7.2.1. Energia berriztagarriaren proportzioa energiaren azken osoko kontsumoan	7.20. Energia berriztagarriaren proportzioa energiaren azken kontsumo gordinean	Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumo gordinean
7.3.1. Intentsitate energetikoa, energia primarioaren eta BPGaren arabera neurtuta	7.35. Produktibitate energetikoa	Intentsitate energetikoa (barne hartzen du kontsumoaren intentsitatea /BPG – azken intentsitate energetikoa-)
7.1.1. Elektrizitatea eskuratzeko bidea duen biztanleriaren proportzioa	7.10. Pobrezia energetikoa pairatzen duen biztanleriaren ehunekoa (etxebizitza behar bezain bero mantentzeko ezintasuna)	Faktura energetikoa: kontsumitutako energiaren urteko kostua

8. Helburua		
Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasagarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea		
8.1.1. per capita BPG errearen urteko hazkunde-tasa	8.10. per capita BPG erreala – hazkunde-tasa	Per capita BPG
8.5.2. Langabezia-tasa, sexuaren, adinaren eta desgaitasuna duten pertsonen arabera banakatuta	8.31. Epe luzerako langabezia-tasa	Langabezia-tasa
8.5.1. Emakumezko eta gizonezko langileen orduko batez besteko sarrera	-	Batez besteko soldata

9. Helburua		
Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasagarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea		
9.2.1. Manufaktura-sektorearen balio erantsia, BPGarekiko proportzioan eta per capita	-	BPG industrialia
9.5.1. Ikerketa eta garapenaren alorreko gastuak, BPGarekiko proportzioan	9.10. I+Garen alorreko gastu nazional gordina	I+Grako Gastua / BPG
11.2.1. Garraio publikoa erraz erabiltzeko aukera duen biztanleriaren proportzioa	9.40. Garraio kolektiboaren ehunekoa bidaiarien lurreko garraio guztian	Pertsonen mugikortasuna lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetan

10. Helburua		
Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea		
8.5.2. langabezia-tasa, sexuaren, adinaren eta desgaitasuna duten pertsonen arabera banakatuta	-	Desgaitasuna duten pertsonen enplegu-tasa
-	-	Biztanleria immigrantearen enplegu-tasa
-	10.24. Eskura dagoen errenta baliokidearen Gini koefizientea	Gini indizea

11. Helburua		
Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasagarriak izatea lortzea		
16.1.3. Azken 12 hilabeteetan indarkeria fisiko, psikologiko edo sexuala pairatu duen biztanleriaren proportzioa	16.19 Bere bizilekuan delituak, indarkeria edo bandalismoa salatu dituen biztanleriaren proportzioa	Kriminalitate-tasa (lege-hauste penalak 1000 biztanleko)
11.6.2. Hirietan esekita dauden partikula finen urteko batez besteko mailak	11.31 Hirietako biztanleriaren esposizioa materia-partikulek airean eragindako kutsaduraren aurrean	Hirietako PM 10 kontzentrazioa
11.6.1. Aldizka batzen diren hiri-hondakin solidoen proportzioa	11.52. Udal hondakinen birziklapen-tasa	Hiri-hondakinen birziklapen-tasa

12. Helburua		
Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasagarriak bermatzea		
7.3.1. Intentsitate energetikoa, energia primarioaren eta BPGaren arabera neurtuta	7.32. Familien azken energia-kontsumoa, per capita	Azken energia-kontsumoa
-	-	Materialen etxeko kontsumoa
12.2.2. Barneko kontsumo materiala, absolutua, per capita eta BPGaren arabera	12.40 Baliabideen produktibitatea	Biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinen ratioa

13. Helburua		
Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko		
13.2.1. Klima-aldaketaren ondorio kaltegarriak egokitzeko politika, estrategia edo plan integratu bat ezarri dutela jakinarazi duen herrialde kopurua	13.11. Berotegi-efektuko gasen emisioak (indexatutako osokokoak eta per capita)	Berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztea
-	12.51. Bidaiarien ibilgailu berriek Km bakoitzeko sortutako CO2aren emisioen batezbestekoa	CO2 baliokidearen kontsumoa kw/ordu bakoitzeko
-	11.31. Hirietako biztanleriaren esposizioa materia-partikulek airean eragindako kutsaduraren aurrean	Airearen kalitatearen indizea

14. Helburua		
Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira		
14.4.1. Biologikoki jasangarria den maila duten arrain-populazioen proportzioa	14.41. Arrantzategi nagusietako harrapaketak	Azaleko ur-masen kalitatea
-	14.43. Ebaluatutako arrain-populazioen artetik, gehieneko errendimendu jasangarri egindako arrantzak (FMSY) eragindako hilkortasuna gäinditzen dutenak	Bainu-eremuetako uraren kalitatea
-	-	Ibaietako uraren kalitatea

15. Helburua		
Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeko eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzeko, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria		
15.1.1. Baso-azalera, azalera osoarekiko proportzioan	15.11. Baso-azalera, osoko azalaren proportzio gisa	Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera
15.9.1. Dibertsitate Biologikorako 2011-2020 sasoirako ezarritako bigarren Aichi Helmugaren arabera ezarritako helmuga nazionalen lorpenean izandako aurrerapenak	15.21. Lurraren per capita estaldura artifizia	Zuhaitzez estalitako natura-guneen dentsitatea

16. Helburua		
Garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrek eta inklusiboak sortzea maila guztietan		
16.3.1. Azken hamabi hilabeteetan indarkeria pairatu duten eta euren biktimizazioa agintari eskudunei jakinarazi dieten biktimen proportzioa	16.32. Justizia-auzitegiak zuzendutako osoko gastu publikoa	Herrialdeko Gobernuarekiko konfiantza
16.10.2. Informaziorako sarbide publikorako berme konstituzionalak, legalak edo arauzkoak ezarri eta aplikatzen dituzten herrialdeen kopurua	-	Nazioarteko gardentasun-indizea
16.5.2. Funtzionario publiko bati eskupeko bat ordaindu dioten edo funtzionario publiko batek eskupekoa eskatu dien negozioen proportzioa	16.50. Ustelkeriaren inguruko Pertzepzioaren indizea	Herrialdeko demokraziaren funtzionamenduari buruzko iritzia

17. Helburua		
Garapen Jasangarriko Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea		
-	-	Giza Garapenaren indizea
-	-	Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzen duten gazteak
17.2.1. Garapenerako laguntza ofiziala, garbia, osokoa eta aurrerapen maila apalagoko herrialdeentzakoak	17.11. EBren finantziarioa garapen bidean dauden herrialdeentzat	Garapenerako lankidetzarako laguntzaren % / BPG

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

